

Euskal Herriko Ahotsak
ahotsak.com

Emilio Olasagasti Lizaso

*Pasaia,
Gipuzkoa
(1920-2016)*

Aurkibidea



Biografia



Emilio Olasagasti Usurbilen jaio zen, gurasoak bertakoak zituen. Baina, hiru urterekin, familia osoa Pasai San Pedroko Trintxer baserrira etorri zen bizitzera. Aitak San Pedroko kale-garbitzaile eta lurperatzailea zen. Sei senidetan bigarrena zen Emilio. Gutxi joan zen eskolara. Hamalau urterekin, Pasai Antxoko txapel-fabrikan hasi zen lanean. Gerora, portuan aritu zen berriz itsasontziak prestatzen eta garbitzen, baita amarratzaile-lanetan ere. Hogeitaemeretzi urterekin, baserritik Pasai Antxora joan zen bizitzera. Geroztik bertan bizi izan da.

Zintak

PAS-008

- **Proiektua:** Euskal Herriko Ahotsak
- **Elkarrizketatzailea(k):** Zabala, Edurne
- **Data:** 2010-11-29
- **Iraupena:** 89 min
- **Euskarria:** Bideo digitala
- **Kodifikatzailea:** Etxeberria, Eider

Pasarteak

1. Trintxer baserritik Kanpitxo baserrira

- **Erref:** PAS-008/002
- **Iraupena:** 0:02:08. **Hasi:** 00:01:12. **Bukatu:** 00:03:20
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserrria » Baserriko bizimodua » Baserriaren historia eta kokalekua

Laburpena:

<p>Lehen, Trintxer baserri ingurua nolakoa zen deskribatzen du: dena basoa zen, zenbait baserri zeuden inguruan... Urtebete inguru egon ziren Trintxer baserrian, Andonaegi armadoreak erosi zuen arte. Orduan, Kanpitxo baserrira joan ziren, San Pedrora. Errentan egon ziren han.</p>

2. Aitaren lanak, eta Trintxerperen itxura lehen

- **Erref:** PAS-008/003

- **Iraupena:** 0:01:38. **Hasi:** 00:03:20. **Bukatu:** 00:04:58
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Lanbideak » Udal langileak

Laburpena:

<p>Aita kale-garbitzaile eta lurperatzaile izan zen San Pedron eta Trintxerpen. Lehen, bera mutikoa zela, lau bat etxe zeuden Trintxerpen, besterik ez; gainerakoan, dena baserriak eta basoa ziren han. Aitak Pasaiaiko udaletxeko langilea zen.</p>

3. Ibiltzeko zaletasuna, bide berriak ezagutzeko gogoia

- **Erref:** PAS-008/010
- **Iraupena:** 0:01:52. **Hasi:** 00:11:03. **Bukatu:** 00:12:55
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Mendia eta hondartza » Mendizaletasuna

Laburpena:

<p>Baserritik behera, portua eta itsasoa zegoen; gora, mendia eta basoa. Emiliok mendira joateko ohitura handia zuen; ibiltzea gustatzen zitzaion. Gaztetan egindako ibilaldiak aipatzen ditu.</p>

4. Txapel-fabrikan lanean

- **Erref:** PAS-008/012
- **Iraupena:** 0:01:28. **Hasi:** 00:13:07. **Bukatu:** 00:14:35
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ekonomia eta industria » Lan-prozesuak
- Ekonomia eta industria » Industria motak » Ehungintza, oihalgintza

Laburpena:

<p>14 urterekin, Antxon txapel-fabrikan hasi zen lanean: 3 pezeta ematen zizkioten 8 lanorduren trukean. Txapel-fabrikan zer lan egiten zituzten azaltzen du.</p>

5. Portuan, txapel-fabrikan baino lan-baldintza hobeak

- **Erref:** PAS-008/013
- **Iraupena:** 0:00:50. **Hasi:** 00:14:35. **Bukatu:** 00:15:25
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ekonomia eta industria » Lan-baldintzak
- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Gerraren eragina

Laburpena:

<p>Txapel-fabrikan zebilela, konturatu zen portuan lan eginda gehiago irabazten zela. Hara joan zen lanera; baina, orduan, gerrara eraman zuten.</p>

6. Barkuak margotzeko jakin beharrekoak

- **Erref:** PAS-008/016
- **Iraupena:** 0:01:58. **Hasi:** 00:17:42. **Bukatu:** 00:19:40
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ekonomia eta industria » Lan-baldintzak
- Itsasoa » Lehorreko lanak » Ontzigintza

Laburpena:

<p>Lehen, barkuak egurrezkoak izaten ziren. Barkuak margotzeko pausoak, materialak eta tresnak zein ziren azaltzen du. Gasolioarekin garbitzen zuten pinturak zikindutakoa.</p>

7. Galegoak "El poblado de Francisco Franco"n

- **Erref:** PAS-008/018
- **Iraupena:** 0:02:14. **Hasi:** 00:20:51. **Bukatu:** 00:23:05
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ekonomia eta industria » Boom industrialak

Laburpena:

<p>Pasaiaiko "Poblado de Francisco Franco"ri buruz hitz egiten du. Horko etxeak errentakoak ziren, baina azkenean maizterrak etxeen jabe egin ziren. Galiziatik jende asko etorri zen "Poblado"ra. Galegoen etxeetan, 6, 8, baita 10 apopilo ere bizi ohi ziren. Andonaegi armadoreak ekarri zuen jende asko Galiziatik, arrantzarako lan-baldintza okerragoak onartzen baitzituzten haiek.</p>

8. Itsasoan egindako gehiegikerien ondorioak

- **Erref:** PAS-008/019
- **Iraupena:** 0:01:22. **Hasi:** 00:23:05. **Bukatu:** 00:24:27
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Itsasoa » Arrantzontziko bizimodua eta lanak » Itsasoarekiko jarrera

Laburpena:

<p>Lehen, Pasaian, barku asko zegoen; etengabe sartzen eta ateratzen ziren. Orain, arraina asko gutxitu da, garai batean gehiegikeria handiak egin zirelako. Lehen, arrain txikiak harrapatzen zituzten, eta itsasora botatzen zituzten, handiak estimatzen baitziren salmentan.</p>

9. Bi gerraren eragina

- **Erref:** PAS-008/021
- **Iraupena:** 0:02:23. **Hasi:** 00:25:29. **Bukatu:** 00:27:52
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Gerran hildakoak eta zauritutakoak
- Politika » II. Mundu Gerra (1939-1945)

Laburpena:

<p>Lehen, Pasaiaiko portuan, lan handia zegoen. Emilio karga eta deskargako lanetan ibili zen. Gerora, II. Mundu Gerra etorri zenean, barkuak metrailatu egiten zituzten; eta, horregatik, inor ez zen ausartzen itsasora irteten. Anaia zaharrena gerratik bueltan hil zen; Emilio gerran zen orduan, eta ez zioten etxera itzultzeko baimenik eman. Beste anaiak gerrara joan behar zuela, Emiliok haren lana hartu zuen portuan. Orduko lan-baldintzak aipatzen ditu.</p>

10. Pasaiaiko portua lehen

- **Erref:** PAS-008/023
- **Iraupena:** 0:01:05. **Hasi:** 00:28:21. **Bukatu:** 00:29:26
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Bainuak, errekek eta uretako jolasak
- Fauna » Natura » Itsas fauna » Beste batzuk

Laburpena:

<p>Lehen, Pasaiaiko portua nolakoa zen azaltzen du. Padura zegoen, eta uretan jolasean ibiltzen ziren umetan. Muskuilu asko zegoen inguru hartan, baina galegoek bildu eta garbitu egin omen zuten ingurua.</p>

11. Euskararen beherakada Pasaian

- **Erref:** PAS-008/025
- **Iraupena:** 0:01:34. **Hasi:** 00:30:15. **Bukatu:** 00:31:49
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Euskara » Euskararen egoera
- Ekonomia eta industria » Boom industrialak

Laburpena:

<p>Eskolan erdaraz ikasten zuten. Pasai San Juanen ondo xamar gorde zuten euskara; baina, gainerakoan, Pasaian, euskara galdu egin zen, giroa aldatu zen. Gerra bukatu eta gero hasi ziren "Poblado" a eraikitzen Pasaian.</p>

12. Gerra hasi zenean, bikarioa hil zuten

- **Erref:** PAS-008/026
- **Iraupena:** 0:02:07. **Hasi:** 00:31:49. **Bukatu:** 00:33:56
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Errepresioak

Laburpena:

<p>Gerra Zibila hasi zenekoa gogoan du. 15 urte zituen. Trintxerpeko bikarioa hil zuten, eskuindarra izateagatik.</p>

13. Gerran, herria hustu egin zen

- **Erref:** PAS-008/027
- **Iraupena:** 0:01:12. **Hasi:** 00:33:56. **Bukatu:** 00:35:08
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » lhes egin beharra

Laburpena:

<p>Gerra etorri zenean, gehienek Bilbo aldera egin zuten alde. Beraiek, ordea, herrian gelditu ziren; aitzak erabaki zuen ez zela handik mugituko.</p>

14. Arraina aukeran zegoeneko garaia

- **Erref:** PAS-008/032
- **Iraupena:** 0:01:10. **Hasi:** 00:41:33. **Bukatu:** 00:42:43
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Itsasoa » Arrantzontziko bizimodua eta lanak » Itsasoarekiko jarrera

Laburpena:

<p>Lehen, arraina aukeran zegoen. Horrenbeste, batzuetan baratzera bota behar izaten baitzuten, simaurra egiteko.</p>

15. Sei urte soldadu

- **Erref:** PAS-008/036
- **Iraupena:** 0:02:45. **Hasi:** 00:47:37. **Bukatu:** 00:50:22
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Borroka
- Ohiturak eta bizimodua » Soldadutza

Laburpena:

<p>Soldadutzan sei urte eman zituen. Gerran, nondik nora ibili zen eta zer komeria bizi zituen azaltzen du. Lizentziatu ostean, etxera itzuli zen; baina berriro mobilizatu zituzten handik gutxira.</p>

16. Soldadu zegoela, sarna harrapatu zuen

- **Erref:** PAS-008/037
- **Iraupena:** 0:02:16. **Hasi:** 00:50:22. **Bukatu:** 00:52:38
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Soldadutza
- Ohiturak eta bizimodua » Osasuna » Gaixotasunak

Laburpena:

<p>Soldadutzako denbora gehienez, mendian ibiltzea tokatu zitzaion. Sarna ere harrapatu zuen.</p>

17. Itsasoko txoriak

- **Erref:** PAS-008/047
- **Iraupena:** 0:01:08. **Hasi:** 01:12:22. **Bukatu:** 01:13:30
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Natura » Fauna » Hegaztiak

Laburpena:

<p>Itsasoko txoriak lehen eta orain nola bizi ziren alderatzen du. Txori klaseak aipatzen ditu. Txori batzuk lagungarriak izaten ziren arrantzarako.</p>

18. Lehen orain baino txori gehiago zegoen

- **Erref:** PAS-008/048
- **Iraupena:** 0:01:35. **Hasi:** 01:13:30. **Bukatu:** 01:15:05
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Mendia eta hondartza » Errekako arrantza eta ehiza
- Natura » Fauna » Hegaztiak

Laburpena:

<p>Lehen txori asko ibiltzen zen beraien baserri inguruan. Ehiza egiteko ohitura zuten etxean. Txori asko zegoen garai batean; baina orain galdu egin da asko, belarra kentzeko pozoien ondorioz.</p>

19. Txoriak harrapatzeko teknikak

- **Erref:** PAS-008/049
- **Iraupena:** 0:03:58. **Hasi:** 01:15:05. **Bukatu:** 01:19:03
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Mendia eta hondartza » Errekako arrantza eta ehiza
- Natura » Fauna » Hegaztiak

Laburpena:

<p>Ehizarako, apeuan aritzen ziren. Horrela, hainbat txori klase harrapatzen zituzten. Txoriak harrapatzeko teknikak azaltzen ditu.</p>

20. Txoriak harrapatu, eta kaiolara

- **Erref:** PAS-008/050
- **Iraupena:** 0:01:13. **Hasi:** 01:19:03. **Bukatu:** 01:20:16
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Mendia eta hondartza » Errekako arrantza eta ehiza

Laburpena:

<p>Garai batean, txori asko harrapatzen zituzten. Batzuk saldu egiten zituzten, jendeak kaiolatan eduki zitzaizkien etxean. Karnaba omen da txori kantaririk onena.</p>

21. Txoriak harrapatu, eta platerera

- **Erref:** PAS-008/051
- **Iraupena:** 0:01:04. **Hasi:** 01:20:16. **Bukatu:** 01:21:20
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Mendia eta hondartza » Errekako arrantza eta ehiza

Laburpena:

<p>Garai batean, txori asko harrapatzen zituzten. Harrapatutako txori batzuk jan egiten zituzten. Txoriak harrapatzeko zepoan, ogi puska edo arto alea jartzen zuten.</p>

Ahotsak.eus-eko edukiarekin sortutako dokumentu automatikoa.

2025-11-13

CC-by-sa | Ahotsak.eus

Badihardugu Euskara Elkartea

Markeskua Jauregia, 20600 Eibar

943121775 - ahotsak@ahotsak.com